

HAURTZARO ARLORAKO MATERIALA

“ERDU - TE INVITO”

1. Sarrera (oinarriak).

- Kanpaina honetan, nabarmendu nahi dugu zein garrantzitsua den familia gure harreman, lotura eta zaintzarako. Familia funtsezkoa da, eta hala ikusi dugu krisi sasoi honetan. Familiak handitu egin dira, jendea gertu egon baita auzoko jendeari laguntzeko: nagusiei, desgaitasunen bat dutenei, lanera joan beharra izan dutenei, edo hilabete amaierara heltzeko zailtasunak izan dituztenei.
Jesusek jendea maitatu eta zaintzera animatzen gaitu; baina ez soilik senide eta lagunak. Ezagutzen ez ditugunak ere zaindu behar ditugu. Izan ere, “Maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer esker on zor zaizue?” (Lucas 6:32).
- Aurten Gabonak egoera zail eta gogor baten erdian helduko zaizkigu. Pandemia hau biktima asko uzten ari da, zentzu guztietan, baina guk itxaropenez hartu nahi dugu sasoi hau, betiko moduan, datorren urteak dakarren ziurgabetasunari aurre egiteko. Aurten distantzia mantentzeko eskatzen ari dira, ez elkartzeko, beste pertsona batzuekin ospakizunik ez egiteko, musurik ez emateko... beraz, inoiz baino kontzienteago izan behar dugu daukagunaz, eta eskerrak eman: Gure familia, lagunak, alaitasuna eta itxaropenagatik. Argia izan behar dugu, eta familia moduan aurrera egin, Jainkoaren ondoan.

2. Dinamikak.

1. Dinamika. Gure Gabonetako postal propioa egingo dugu.

Parte-hartzaile bakoitzari postal bat emango zaio. Gabonetako kartelaren irudiaren zati baten inguruan baino ez dauka (material hauen amaieran dago). Hurrei eskatuko zaie postalean marraztu edo collage bat egiteko, honako galderak eginez (arbelean jarri ahal dira):

- Nor nahiko zenuke mahai honetan egotea? (Egongo diren pertsonen marrazkia egiteko eskatu ahal zaie, ...)
- Nola nahiko zenuke egotea? (Hemen emozioak marraztera animatu ahal zaie, eta zein jarrera hartuko luketen; zutik, eserita, gertu, eskutik helduta...)
- Zer falta da marrazkian, mahaian, mahaiaren inguruan?

Behin marrazkiak amaituta, postala gainerakoei erakustera animatuko zaie, esan dezaten zer marraztu duten eta zergatik.

Dinamika bukatzeko, honakoa galdetuko zaie:

Zer ekarriko duzu zuk mahai honetara, Gabonetan? Ez gara gauza materialez ari, baizik eta gainerakoekin partekatu nahi diren jarrerez, sentimenduez, emozioez.

Denboraren arabera, eskatuko zaie familiarentzako zorion-mezu bat idazteko. Zer opa diete beren senideei? Eta moztu dezatela. Etxean egin dezakete, eta leku bereziren batean jarri (Jaiotzaren ondoan, zuhaitzean...)

2. Dinamika. Desio eta ametsen izarra egingo dugu.

Galdera hauekin hasiko gara, pertsona guztien artean iritziak partekatzeko:

- Nola irudikatzen dituzu Gabonak aurten? Uste duzu oso desberdinak izango direla zuretzat? Eta beste pertsona batzuentzat? (zure familia, lagun, auzokide, ikastolako kideentzat...)
- Zer uste duzu egin dezakezula Gabon hauek zuk nahi bezalakoak izateko?

Hausnarketaren ostean, izar bat emango zaio parte-hartzaile bakoitzari (materialen amaieran dago), eta desio edo amets bat idazteko eskatuko zaie, bereziki. Ezin da ezer materiala izan, ez da Olentzerorentzako eskutitza. Aitona edo amona besarkatzea eska daiteke, edo ama eta aita etxean gehiago egotea, edo lagunekin egon ahal izatea, ikasgelan kideei laguntzea, ausardia izatea... Desioaren azpian, desio hori betetzen lagunduko duen ekintza bat idatz dezakete.

Behin desioak eta ekintzak idatzita, izarra mozteko eta etxean eskegitzeko eskatuko diegu. Dinamika bukatzeko, nahi duenak bere desioa eta ekintza partekatu ditzala gainerakoekin.



3. Dinamika. Hainbat jolasa

HAINBAT jokoa balioetan hezteko eta adimen emozionala sustatzeko proposamen ludiko eta dibertigarria da, taldean egiteko.

Kidenda, Jakinbide edo Kooperan erosi daiteke. On line ere jolas daiteke: www.hainbatjolasa.org



3. Otoitza

Dinamikan partekatu duguna gogoan hartu, eta otoitzera eramango dugu.

Kaixo, Jesus,
ene adiskide, anai eta Jainko!
Bai ondo sentitzen nazala, Jesus,
maite eta babesten nabenen artean
nagoanean.
Horregaitik, ahal dodan guztietan,
adiskide eta senide maiteekin
egoten saiatzen naz.
Benetan bikaina litzateke mundu honetan
anai-arreba lez sentituz,
familia berekoak bagina lez alkar hartuz,
bizilagun izatea.
Baina hori gatxa da, Jesus.
Arazo ugari dago bizikidetzarako,
borroka eta hasarre larregi,
irain eta guzur ugari...
Zu, Jesus, mundua zeru bihurtzeko etorri
zinan,
gizon-emakume guztiok anai-arreba eta
adiskide lez bizi gaitezun,
zeuk egunero hartzen gaituzun lez.
Lagundu, Jesus, gainerakoakaz bizitzen,
besteen anai-arreba izaten,
danak ondo hartzen, danei ona opatzen,
danok anai-arreba garalako, zuk holan
sortuta.

Amen



Dale color a tu oración



Desio eta ametsen izarra



